



EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA EROSKETA PUBLIKO ETIKOA KONPROMEZUA

Geroz eta interkomunikatuagoa eta elkar-menpekoagoa den mundu honetan, non badirudien distantziak egunez egun murrizten ari direla, herrialde aberastu eta pobretuen arteko sakana handitzen ari da.

Elikagaiak lortzeko eta ondasunak ekoizteko nekazarien lana ezinbestekoa den mundu honetan, eguneko dolar bat baino gutxiagorekin bizirauten duten pertsona guztietatik bi herena, nekazal inguruetan bizi dira eta bertan lan egiten dute.

Elikagaiari bere eskubide izaera kendu eta merkantzia huts bihurtzen den mundu honetan, nazioarteko merkatu arauak eskuarki, eta nekazal merkataritzaren arauak bereziki, pobreziatik ateratzeko aukera oro baldintzatzen dizkie nekazariei, nekazal inguruneei eta lehengaiak esportatzen dituzten herrialde pobretuei.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hainbat **herri administrazioetako** ordezkariak:

Berresten dugu:

- Munduan gertatzen diren **pobreziaren** eta **desberdintasunaren** sustraietara joko duten prozesuak laguntzeko dugun **konpromezua**, modu horretan, bat eginez pobreziaren aurka eta Giza Garapen Iraunkorraren alde egiten diren ahalegin ororekin.

Adierazten dugu:

- Munduko pobreziaren aurka jotzeko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko abian jarri ditugun ekimenak modu eraginkorrean aberasteko eta osatzeko dugun nahia, herrialde pobreenekin eta planeta berarekin **arduratsuagoak diren jarrera eta jokamolde** berriak gureganatuz.
- Eguneroko jardunean gure administrazioei dagokien **ardura** maila onartzeko dugun nahia, gure jardura eremuan eta bestelako ekimenaz gain, erosketara publikorako irizpide berriak barneratuz eta Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza politikak hobetuz. Modu honetan herrialde pobretuekiko bidezkoagoak izango diren prozesu politikoak eta ekonomikoak sortu daitezten sustatuz.



EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA EROSKETA PUBLIKO ETIKOA KONPROMEZUA

Kontzientzia hartzen ari gara:

- **Pobreziaren** aurkako borrokarako eta Giza Garapen Iraunkorraren sustapenerako dauden **bide eta erremintak** geroz eta anitzagoak direla, tresna hauek pertsona, elkarte, enpresa, korporazio eta erakunde orori dei egiten dietela, haien eguneroko jardunean dagokien ardura har dezaten.
- Herri administrazioek merkatuekiko duten **eragiteko** ahalmena handia da, **erosketa publikoaren** bolumena handia dela eta.
- Herrialde pobretuenekiko onuragarriago izango diren dinamikak sor ditzaketela herri administrazioek, **Erosketa Publiko Etikoaren** irizpideak barneratzearen bitartez.
- Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak barneratzeko herri administrazioen ekimenak **eredu izan** daitezkeela bai enpresa hornitzaileentzat, bai eta enpresentzat oro har, edota hiritarrentzat, beraien eguneroko jardunean dagokien ardura har dezaten ingurugiroarekiko eta gizartearekiko.

Onartzen dugu:

- **Erosketa Publiko Etikoa** erreferentzia marko gisa, pobreziaren aurkako eta Giza Garapen Iraunkorraren sustapenerako jardunbide berriak garatzen joateko, hala nola, Bidezko Merkataritzako produktuak sartuz erosketa politiketan.
- **Bidezko Merkataritza** Garapenerako Lankidetzarako bitarteko eraginkor gisa, aitortzen diogularik bere ekarpena Giza Garapen Iraunkorrari, genero berdintasunari, ekoizleen aurrerapen sozial eta ekonomikoari, aberastasunaren banaketa berdinzalegoari, ingurumenaren orekari eta kulturen arteko errespetuari.

Azaltzen dugu:

- Pobreziaren aurkako borrokan eta Giza Garapen Iraunkorraren sustapenerako egiten ditugun jardueren eragina handitu asmoz, bide berriak urratu edota indartzeko gure konpromezua. Gure eguneroko jardunean Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak gureganatuz, hain zuzen, **Garapenerako Lankidetzako gure ohiko politikak osatuko dituzten bideak**.



EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA EROSKETA PUBLIKO ETIKOA KONPROMEZUA

Aipatutako guztia dela eta, dokumentu hau izenpetuz **konpromezua hartzen dugu**:

- **Erosketa Publiko Etikoaren irizpideak** gureganatzeko jarduerari ekin, edota abian direnak sendotu, jarduera plan bat ezarriz. Plan honek ildo estrategikoak markatuko ditu, eta epe labur, erdi epean eta epe luzean burutzeko jarduerak bilduko ditu.
- Erosketa Publiko Etikoaren lehen jarduera konkretu gisa, Erosketa politiketan **Bidezko Merkataritzako produktuen** sarrera bultzatzeko.
- Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntza gaietan **Bidezko Merkataritzarekin lotutako jarduerak** bultzatu, horretarako beharrezkoak diren aldaketak sartuz, bai ildo estrategikoetan, bai eta Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren proiektuen dirulaguntzei dagokien deialdi publikoetan.
- Pobrezia, genero berdintasuna eta bidezkoago eta iraunkorragoa izango den mundu baten aurkako borrokan, Erosketa Publiko Etikoak eta Bidezko Merkataritzak dituzten eragin positiboetaz, **herritarrak** informatu eta kontzientziatu.

Dokumentu hau sinatzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), (data).....

(Instituzioa, Izena eta kargua, sinadura, zigilua).